



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2015 eko EKAINAREN 30ean OSPATUTAKO EZ OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2015ko ekainaren 30ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakari zapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Ainara Sarasola Arsuaga
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Udalbatzaren bileren maiztasuna zehaztea
2. Informazio-batzorde iraunkorrak sortzea eta eratzea.
3. Korporazioaren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan izango dituen ordezkariak izendatzea.
4. Alkateak alkateordeak izendatzeko ebazpenak ematea.

.../...

LEHENENGO PUNTOA
UDALBATZAREN BILEREN MAIZTASUNA ZEHAZTEA.

Ikusirik Udalbatzaren bileren maiztasuna zehaztu beharra dagoela eta bertaratuek aho batez erabakitzen dute:

Udalbatzaren bilerak hilean behin ospatuko direla, hileko azkeneko asteartean arratsaldeko 19.30 orduetan, egun hori jai eguna denean ezik, kasu horretan laneguna den lehenengo asteartera atzeratuko direlarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARREN PUNTOA
INFORMAZIO-BATZORDE IRAUNKORRAK SORTZEA ETA ERATZEA.

Udalbatzarrak aho batez, ondorengo batzorde iraunkorrak sortu eta eratu ditu:

Ogasuna eta Kontuetako batzorde berezia: Jose Ramon Hernandez Cristobal, Jose Mari Aranzabe Urruzola eta Jon Umerez Urrezola.

HIRUGARREN PUNTOA
KORPORAZIOAREN ESKUMENEKOAK DIREN KIDE ANITZEKO ORGANOETAN IZANGO DITUEN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Udalbatzak aho batez, Korporazioaren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan ordezkari moduan ondorengoak izendatzea erabakia du:

TOLOSALDEA GARATZEN : Jon Umerez Urrezola eta ordezkaria Jose Ramon Hernandez Cristobal.

APATTA-ERREKA INDUSTRIGUNEA : Jon Umerez Urrezola eta ordezkaria Jose Ramon Hernandez Cristobal.

TOLOSALDEKO HILTEGI KOMARKALA: Xabier Mugica Letamendia eta ordezkaria Onintza Gorostidi Murua.

ESKOLA KONTSEILUA: Onintza Gorostidi Murua eta ordezkaria Uxue Etxebeste Eizagirre.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA: Jon Umerez Urrezola eta ordezkaria Uxue Etxebeste Eizagirre.

KOMUNIKABIDEAK: Jose Maria Aranzabe Urruzola.

AIZTONDO Gizarte Zerbitzuak: Koldo Jauregi Zinkunegi eta Kultura: Uxue Etxebeste Eizagirre.

TOLOMENDI: Xabier Mugica Letamendia eta ordezkaria Onintza Gorostidi Murua.

AGENDA XXI: Koldo Jauregi Zinkunegi eta ordezkaria Jose Ramon Hernandez Cristobal.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAURTZAINDEGIA: Jose Maria Aranzabe Urruzola eta ordezkoa Onintza Gorostidi Murua.

LAUGARREN PUNTOA
ALKATEAK ALKATEORDEAK IZENDATZEKO EBAZPENAK EMATEA.

Alkate-Lehendakariak adierazten du 29/2015 Alkate ebazpenen bidez, Koldobika Jauregi Zinkunegi zinegotzi jauna izendatzen duela Lehen Alkateordea eta Jose Maria Aranzabe Urruzola zinegotzi jauna Bigarren Alkateordea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19.40etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.